

noaua



**Otsailaren 28ra arte
itxita egongo da N-634
errepideko errei bat,
Troia eta Txikierdi artean**

**Ugartondoko obretako
ur zikinak erre kara isuri
dituztela salatu du
Anerreka elkarteak**



**Urtarrilaren 5eko kabalgata
arratsaldeko 19:00ak aldera
iritsiko da Usurbilgo frontoira**



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK


**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

www.funerariagonzalez.es

GOLDWELL
ELUMEN

*i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*



Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

URDAIRA

Sagardotegia

**IREKIERA:
URTARRILAK 14, LARUNBATA**



Aginaga 943 37 26 91

eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

2023rako helburu berririk?

Eskuran, elikadura ohiturak zure neurrira
aldatzen lagunduko dizugu!
Zatoz! Eskura gaituzu!

Diabetesa, hipertentsioa, gizentasuna,
elikadura eta kolesterol arazoak.

Zubiaurrenea 1 -1°C, Usurbil
Aurretikako zitarekin:

688 843 696

www.eskuradietetika.com

Albisteak iruditan

Askatasuna plazako komun publikoa egoki erabiltzeko deia egin du udalak

Norbait Askatasuna plazako komuna desagoki erabiltzen ari dela ohartarazi du Usurbilgo Udalak. Horren aurrean, Askatasuna plazako komun publikoa egoki erabiltzeko deia egin du. Ohar bidez jakitera eman duenez, "herriar guztien erabilera eta onurarako jarria da, eta ondasun publikoak arduraz eta egoki erabiltzekoak dira".

Udal-brigadaren ohartarazpena tarteko, azken aldian komun honekin gertatzen ari dena azaldu du. "Azken hiru hilabeteetan, baten batek Potxoenea pareko komun publikoa modu desagokian erabiltzen duela jakinarazi du. Brigadaren esanetan, erabilera desagoki hori apropos egina dela begi bistakoa da, komunetik behera botatzekoak ez direnak topatu dituztelako, astero-astero, komunaren erabilera arrunta oztopatuz. Batik bat, zerbeza-latak bota izan direla azaldu dute".



Komun zulora zerbeza-latak bota izan direla salatu dute udal iturriek. Argazkia: Udala.

Laburrean

Urtarrilaren 16an, odol ematea

Bi hilean behin lehen astelehenetan izaten da odola emateko aukera Usurbilen. Urtarrilean egokitzen denean ordea, gabonak tarteko hitzordua atzeratzen dute, aurtengoan hilaren 16an izango da,

16:30-20:30 artean Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

LAB nagusi Micheline

Sei delegatu eskuratu ditu LAB-ek (168 bozka), bost CCOO-k (102 bozka) eta bina CSI-k (40 bozka), UGT-k (53 bozka) eta ELA-k (49 bozka), berriki Micheline egin dituzten hauteskunde sindikaletan.

noa

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaueus /// www.noaueus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordintzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre

Julenek deitu dit, Bartzelonara datozela Realaren kontrako partida ikustera. Bale. Igandean da. Bale. Hiria ezagutu nahi dute. Bale. Gida lanak egingo zenituzke, Laura? Bale-zer?

Ustekabean harrapatu zintuen proposamenak.

Gaur asteazkena da, noiz datoz ba?, larunbat arratsaldean erantzun nizun.

Eta partida noiz da?, igandean bazkalostean erantzun nizun.

Joder, nik zurekin pasa nahi nuen igandea. Gironellara joatea pentsatzen nuen. Horrela, bertatik bertara ikusiko zenuen zure protagonistaren herria.

Ez nekien horri nola eman buelta. Tximeletak bizkarrean eleberriari buruz hitz egin nizun lehen egunetik aurrera, liburua irakurtzeko gogoak azaldu zenizkidan hamaika maneretan. Itzul nezan ere proposatu zenidan. Hori zaila zegoen, baina Bartzelonan eta Katalunian Sarak egiten zuen ibilbidea elkarrekin egin genezakeela iradoki izan nizun behin baino gehiagotan. Eta behin Gironellara joatea planteatuta, ezin nizun ezetz esan. Nire buruarekin haserretzen ari nintzen.

Gironellara guztiok joan gaitezke, bota nuen pentsatu gabe. Erabat irreala zen. Gezurra izanda ere lagunak zihozazela, ez litzaieke horre-

Biharrek inoiz ez daki (4)



“Sagrada Familiatik gertu jan genituen pizza haiek berriro dastatzeko gogo sartu zitzaidan”.

UGAITZ AGIRRE

“Egina eginda zegoen, atzera kontua martxan jarri zen, eta ez zegoen beste irtenbiderik jolasari jarraipena ematea baino”

lako planik interesatuko.

Baina nik zurekin bakarrik joan nahi dut, erregu tonuan. Begiak dirdizka zenituen eta ume mutur hori.

Sukalde txikian sartu nintzen bazkaria prestatzeko intentzioarekin. Plana ez zen nahi bezala atera. Ez, zinez gaizki atera zen. Gezur kumulu bat eraiki nuen zeina ez zen bere pisua sostengatzeko gai. Realak ere ez zuen eta bertan jokatzeko!

Egina eginda zegoen, atzera kontua martxan jarri zen, eta ez zegoen beste irtenbiderik jolasari jarraipena ematea baino.

Lagunek ustez lurrartzeko

72 ordu inguru faltan, zentrora jaitsi ginen. Rambletako turista saldotik ahalik eta urrunen, iparralderantz abiatu ginen. Zabalgunek alderatuz, Gracia pasealekuaren eta Dublingo O’Connell Street-en antzekotasunak xuxurlatu nizkizun, baina zure interesak beste nonbait zeuden, ez nire azalpen pedanteetan.

Dublinera joan gaitezke, esan zenidan segituan.

Gorputzak akzioa eskatzen zizula zirudien, eta nik, nire ergelkeria eta banitatea tarteko, ezetz esan nizun erronka absurdoa tarteko. Graciako luxutik aparte geratzen zen taberna-kafetegian azaldu nizun zorakeria: James Joyce idazlearen Ulises irakurri behar nuen Dublinera itzuli aurretik.

Ze ergelkeria!, eta interneten zein libururi buruz ari nintzen hizketan ikusi ondoren, hizki larriz errepikatu zenidan.

Bizitzan zenbat ergelkeria egin ote dituzu pentsatzen duzun guztiaren erdia egitera iritsi bazara Ugaitz?

Bartzelonara joatea zaku horretan sartzen zela aipatu, eta zuk:

Baina hori polita izan zen.

Lagunek ustez lurrartzeko 48 ordu inguru faltan, metroak begien aurrean itxi zizkigun ateak. Hurrengo hiru minutu barru zetorren, baina zuk kendu zizkizuten hiru minutu horiek eskatzen zenizkion tren-konpainiari. Estu besarkatu zintudan entretenigarriago egiteko esperoa. Zuk igarri, nahiz eta aprobetxatu. Sagrada Familiatik gertu jan genituen pizza haiek berriro dastatzeko gogo sartu zitzaidan. Berriro joan gintezkeen hara afaltzera.

Gironellara joan nahi zenuela han esan zenidan, oroitzapenak freskatuz. Zure lagunak ostatu non hartu duten badakizu? Horrela inguru horretara joan gaitezke eta zer dagoen begiratu. Denbora aurrezteagatik.

Azaleko zeluletan nabari ez bazen ere, guztiz urduri nengoen. Kalanbreak ustekabea, orroak sabelean. Ez nekien nola jarraitu gezur hura, jadanik fikzioa ere ez zena, ez baitzen sinesgarria. Hegaldia atzeratu zutela esan behar ote nizun hurrena? Suma ez zenezan, zu besarkatzeari utzi nion.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Art Pi
barkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
© 943 362725
© 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Bidegorriak eta San Esteban kalea oinezkotzeak

Usurbil jasangarriagoa egingo dutela dio PSE-EE-k

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako departamentuak ia 18.000 euroko dirulaguntza emango du San Esteban kalean bidegorri bat egiteko eta oinezkoentzat jartzeko proiektua prestatzeko.

Francisco Suarez Usurbilgo PSE-EE udal taldeko bozeramaileak esan du Usurbilek aurrera egin behar duela “iraunkortasunean”, eta bizikleta “aliatu handia” dela auto pribatuaren erabilera murrizteko. Horregatik, ziurtatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Udalari bidegorri-rako eman dion dirulaguntza oso garrantzitsua dela herri-rako. 17.908,00 euro dira San Esteban kalea berrurbanizatze-proiektua prestatzeko.

Prensa ohar batean, Suarezek azaldu du 2021eko abenduan



Patxi Suarez PSE-EEko kidea, Rafaela Romero Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuarekin batera.

PATXI SUAREZ, PSE-EE

“Bidegorriak jartzen badituzu, jendeak erabiliko ditu”

EHBilduko udal gobernuari ekintzak eskatu zizkiola kale horretan dauden “gabeziak” ikusi-

ta. Kale hori Usurbilgo kaleen ibilbide nagusiaren zati bat da; tren geltokirako pasabide-tik gertuen dagoen gunea, oinezkoek eta bizikleta erabiltzen duten pertsonen joan-etorri-rako erabiltzen duten espazioa, baita haurrek ere. Ondorioz, uste du berritzea eta trafikoa mugatzea premiazkoak direla

segurtasunerako. “Bizikletak beti kendu behar dio lekua autoari, inoiz ez oinezkoek”, esan du Suarezek Usurbilgo erdigunetik trafiko pribatua murriztea PSE-EErentzat helburu bat dela baieztatu ondoren. Gainera, bidegorriak eraikitzeke beharra aldarrikatu du. “Edozein bizikleta azpiegitura irtenbide ona da jendea bizikletaz modu jasangarrian mugitzeko. Bidegorriak jartzen badituzu, jendeak erabiliko ditu”, esan du amaitzeko.

PSE-EEk 2022rako udal aurrekontuaren proiektuan sartzeko proposatutako neurriak ez ziren onartu, baina Mugikortasun Sailak San Esteban kaleko proiektua idazteko emandako dirulaguntza hori Usurbilgo ingurumen eta gizarte hobekuntzaren alde sailak egindako apustuaren erakusgarri da talde sozialistaren iritziz.

Ika-mika

“Quovadis Osakidetza”

Osakidetza medikuek berriro ekin diete protestei, “gerentzia berriarekin desadostasunak direla medio, eta Agustin Agirre solaskide gisa aitoritzen ez dutelako interlokuziorako”.

Gerente berriak OSiko zuzendariorde eta zirujaua den Adolfo Begiristainen hitzak ukatzeko eskatu zien, Osasun

sailburuari gezurrak leporatu zizkionean.

Salatzen dituen gabezia batzuk baloratu gabe berridazten dut: “Aholkulari hau eta Osakidetza zuzendari hau hemen daudenez ez dugu kontrol-zuzendari bakar bat ere izan” eta “Erresonantzia magnetikoa eta ebakuntza barruko eskanerra ez duen hirugarren zentro bakarra gara”.

Dimisioa eman duen medikuaren bi kexuei lotutako istorio batekin bukatzen dut. Hilaren 23an, krisi epileptiko baten ondorioz duela 15 egun ingresatu zuten 50 urte inguruko lagun bati buruko ebakuntza egin zioten. Urrian, neurologia kontsultara joan zen eta agian larria izan zitekeen diagnostikoa jaso zuen, ekografia baten emaitzaren zain; 2023ko mar-

txorako eman zioten zita... Tartean epilepsia krisi bat.

Kontrol-kudeaketa, ekipamendu eta giza baliabideen falta ala motibazioa? Osasun arloan, dena garrantzitsua izanik, premiazkoa dena ezin da atzeratu. Nahi eta nahiezkota da gai hau jorratzea... baina tonu ez hierarkikoarekin.

Iulen Lizaso

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

lnaki
Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@lnakiiturgintza.com • www.lnakiiturgintza.com
600 024 825

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Lan Eskaintza Publikoan izena emateko epea irekitzeaz da

Espainiako Egonkortze Legea tarteko, Usurbilgo Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak 26 lanpostuko Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen, “administrazio publikoko lanpostuen behin-behinekotasun tasa jaisteko”. Udalak 2024. urtea amaitu arteko tartea du, prozesu guztiok amaitzeko. Ezinbestean bete beharrekoa du behin-behinekotasun tasa jaistea helburu duen aipatu estatuko legea.

Prozesu horretan urrats berri bat eman du Udalak. Abenduaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean “enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko abenduaren 28ko 20/2021 legetik eratorritako Usurbilgo Udaleko enplegu publikorako eskaintzan jasota dauden” hainbat plaza betetzeko deialdia eta haren oinarriak kaleratu zituen. Zehaztu zuenez, “urtarrilaren hasiera-erdialdean irekiko da” izena emateko epea. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita 20 eguneko tartea ireki-



Usurbilgo Udalak 26 lanpostuko Lan Eskaintza Publikoa egitea adostu du, “administrazio publikoko lanpostuen behin-behinekotasun tasa jaisteko”.

UDALA

“Inskripzioak telematikoki egin ahalko dira usurbil.eus atariaren bidez edota udal erregistrora joanda”

ko dute. Inskripzioak telematikoki egin ahalko dira usurbil.eus atariaren bidez edota udal erregistrora joanda.

26 lanpostu

Bi prozesu mota bideratuko dira lanpostu hauek guztiak betetzeko. “Lanpostuaren arabera, oposizio-lehiaketa (azterketa) bidez edo meritu lehiaketa hutsez egingo dira prozesuak”. 26tik 25 meritu lehiaketa hutsez ebatziko direla berri eman du Udalak, “eta bakarra oposizio-lehiaketa bidez”.

Adostasuna

Lehiaketa-oposaketa sistema

bidez beteko da aldiz, administrazio bereziko teknikari plaza bat. “Egonkortuko direnak lanpostuak izango dira, eta ez gaur egun horiek betetzen ari diren langileak”, argitu du Udalak.

Deialdi hauek plazaratu aurretik, “joan den astean lanpostuak egonkortzeko prozesuaren azken berrien inguruan hitz egiteko batzarra egin zuten udal gobernauk, komiteak eta langileak”. Azken aldiaren sarritan egin duten moduan. “Udalean, legea argitaratu zenetik, etengabeko lanean aritu dira, eta azken aste eta hilabeteetan ia astero bildu dira: saioetan izandako adostasuna nabarmendu dute alde guztiek”.

Azken bilkuran azaldu zuten, “hainbat gunetan juridikoki zalantzan jartzen da legea, dituen irizpideengatik; besteak beste, Gipuzkoako hainbat udaletako idazkarik kezka agertu dutela” adierazi zuten Beñat Larrañaga udal zinegotziak. Informazio gehiago, abenduaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Txokoaldeko tunelaren proiektua, jendaurrean berriz

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak jendaurrean jarri du berriz abenduaren 22tik zenbatzen hasita 30 egunez “Aginagako tunelaren eraikuntza-proiektua eta dagoen ingurumen-inpaktuaren azterketa”. Gasteiztik argudiatu dutenez, “proiektuaren konplexutasuna eta hari zegozkion eranskin guztiak argitaratu gabe” zeudelako jarri dute berriz jendaurrean. Aurreko epealdian aurkeztutako alegazioak kontuan



Gasteiztik diotenez, “proiektuaren konplexutasuna eta hari zegozkion eranskin guztiak argitaratu gabe” zeudelako jarri dute berriz jendaurrean.

hartuko direla ohartarazi du Jaurlaritzak. Hilabete hasieran auzoan bertan egin zuten agerraldi bidez iragarri zuten

moduan, hobekuntza eskaera sorta aurkeztu dizkiote proiektu honi Txokoaldeko Txokoargi auzo elkarteak eta Usurbil-

go Udalak: besteak beste, Txokoaldeko sarrera-irteerak hobetzea, Altzonazko zubia konpontzea, tren pasabidea ezabatzea, obararako bide alternatiboa eta etorkizuneko bidegorria eraikitzea, geltokia berreskuratzea edota ingurumen eragina murriztea galdegin zuten auzokideak eta udal ordezkariak batu zituen hitzorduak.

Informazio gehiago abenduaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkituko duzue.

Anbulatorio atarian mobilizatu dira Osakidetza babesteko

Osakidetza defentatzeko eguna izan zen abenduaren 22a Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ospitale eta anbulatorioetan. Osasuneko Mahai Sektoriala osatzen duten LAB, SATSE, ELA, SME, CCOO eta UGT sindikatuak mobilizazio eguna deitua zuten; goizeko 11:00etan ospitaleetan eta 13:00ean anbulatorio atarietan. Aipatu moduan, osasun zerbitzu publikoen defentsan, inposizioen aurka eta negoziatzioaren alde. Eta hainbat arazo konpontzea eskatzeko.

Antolatuak zeuden elkarretaratzeekin bat egin zuten baita Usurbilgo anbulatorioan. Osasun-etxe atarian bildu ziren zenbait langile eta herritar. Besteak beste, sindikatuon esanetan, Osakidetza egun izaten segi eta onartezintzat jotzen dituen hainbat arazo salatu zituzten elkarretaratzeon bidez: “langileen %50ak behin-behineko kontratua du; plantillaaren erosahalmena %20 baino gehiago jaitsi da hamarkada batean; gehiegizko lan karga arazo sistematikoa bihurtu



Abenduaren 22an osasun-etxe atarian bildu ziren zenbait langile eta herritar.

DEITZAILEAK

“Sindikatuak ezinbestekotzat jotzen dute langileak eta herritarrak elkartuko dituen mobilizazio dinamikekin jarraitzea”

da; behar baino langile gutxiago daude txanda bakoitzean; Deustuko, Zumarragako eta San Martingo PACetan, Santiago Ospitaleko larrialdietan eta Basurtuko bihotzeko kirurgian murrizketek indarrean jarraitzen dute; murrizketa berriak

planteatzen ari dira Lehen Mai-lako Arretan eta lan baldintzetan; Garapen Profesionalean murrizketa izugarria egin nahi dute...”.

Iragan abenduaren 22ko deialdiekin sindikatuak 2023an segida izango duen mobilizazioen dinamikari ekin diotela berri eman zuten. “SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuak ezinbestekotzat jotzen dute langileak eta herritarrak elkartuko dituen mobilizazio-dinamikekin jarraitzea, gaur egin duten bezala”, adierazi zuten.

Berritze-lan gehiago N-634 errepidean

Udazkenean hasi baina eten egin zituen lanei ekingo die berriz Gipuzkoako Foru Aldundiak. Otsailaren 28ra arte itxita egongo da N-634 errepideko errei bat Troia eta Txikierdi artean. Hala jakinarazi dio egunotan Usurbilgo Udalari. “Tarte horretan, trenbidearen eta errepidearen arteko horma indartzeko lanei berrekingo diete. Behin-behineko semaforoak jarriko dituzte, eta trafiko handiko aldietan langileek bideratuko dute”.



Otsailaren 28ra arte itxita egongo da N-634 errepideko errei bat Troia eta Txikierdi artean.



“Bi arnas” dokumentala eskaini zuten Sutegin

“Bi arnas” dokumentala eskaini zuten abenduaren 29an Sutegin. Dokumentalak torturaren gaineko testigantza zuzena biltzen du Iratxe Sorzabal presoaren ahotik eta haren ama Maria Nieves Diazek kontatutakotik. Torturapean Iratxek esandakotik 25 urteko espetxe zigorra jarri zioten eta hori dena bildu dute dokumentalean.

Dokumentala amaitu ostean, Iratxeren kasua sakanagotik aztertu eta torturapean jasotako testigantzen gaitan sakontzeko aukera izan zuten Sutegira bertaratutakoek dokumentalaren zuzendariarekin.

“Isturitzetik Tolosan barru”, Artzeren heriotzaren

5. urtemugan

Iñaki Urruzolak Udalaren laguntzaz ekoiztutako ‘Isturitzetik Tolosan barru’ ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute urtarrilaren 15ean 18:00etan Sutegiko auditorioan. “Ikus-entzunezko xume honen funtsa Euskal Kulturgintza hizki handiekin eratzen lagundu zuen Joxan Artzeren obra ezagutzera ematea da”.

Segidan, Urruzolarekin eta Iratxe Retolaza literatura-kritikari eta ikertzailearekin solasaldia iragarri dute. Jexux Artze K.E.-k eta Usurbilgo Udalak antolaturiko proiektiorako gonbidapenak doan jaso ahalko dira usurbilkultura.eus plataforman edo Lizardi liburu-dendan.

Ugartondoko obretako ur zikinak errekarara isuri dituztela salatu du Anerreka elkarteak

Ugartondoko obrako komunetako ur zikinak Aranerrekarara isurtzen jardun dutela salatu du Anerreka Ingurumen Elkarteak eta salaketa aurkeztu du udal erregistroan.

2018tik Ugartondo auzuneko etxebizitzak eraikitzen ari den Jaureguizar eraikuntza enpresak ur zikinak Aranerrekarara isuri dituela dio Usurbilgo ingurumen elkarteak: “Al-dageletarako baliatzen dituen kabinetako konketa, dutxa eta komunetako urak eta gainerrakoak, zuzenean isuri ditu errekarara”. Egoera hau ikusita, argazkiak atera eta joan zen abenduaren 19an udal erregistroan salaketa aurkeztu zuen Anerreka Ingurumen Elkarteak.

Abenduaren 20an, Aranerrekarako urak “zuri-zuri” zeudela gaineratu du Elkarteak Puntapaxeko zubi ondotik behera. Hain zuzen, Ugartondo auzuneko berriko kaleetako euri-urak errekaratzen diren gunetik behera. Isurketa hau, Ugartondoko obretatik porlanez nahastutako urak bota zituztelako



Ez da Anerreka ingurumen elkarteak egin duen salaketa bakarra. Abenduaren 20an Aranerrekarako urak “zuri-zuri” zeudela salatu dute.

ANERREKA ELKARTEA

“Udalaren utzikeria salatu du. 2016az geroztik egoera hau gertatuko zela jakinda ere, neurri zuzentzaileak hartu ez izana leporatu dio”

gertatu zela esan du Anerreka Ingurumen Elkarteak.

Euri-jasa handiak izaten direnean, errekararen albotik doan ur beltz edo zikinen hodiak gainezka egiten du, eta, arketek ere gainezka egiten dutenez, ur guztiak, zikinak

barne, parkera ateratzen dira, eta azkenean errekan bukatzen dute. Azkenekoa joan zen azaroaren 21ean izan zen, parkeko oinezkoen pasealekua ixtea eragin zuena. Arazo hau, are gehiago korapilatuko dela uste du Anerreka Elkarteak Ugartondo auzunea bizilagunez betetzen doan heinean, hodi horretatik joan behar baitute, handik isuriko diren ur zikinak. Udalaren utzikeria salatu du Anerreka Elkarteak eta 2016az geroztik egoera hau gertatutako zirela jakinda neurri zuzentzaileak hartu ez iza-

na leporatu dio.

Isurketa kutsakorrek eten-gabe jasaten ari da Anerreka Elkartearen ustetan, baina bere ekosistema berreskura dezan, ez dagoela inolako planik diote. Honetaz jabetzeko errekararen albotik ibilaldi bat egitea nahikotzat jo dute, bere ibilguaren lehengoratzeara eragozten duten oztupoak zenbat diren ikusteko: hormigoizko presak, ez dakigu nora doazen hodiak, ... Aranerrekek hainbat isurketa sufritu dituela gaineratu dute. Axolagabetzat hartu dute Usurbilen ingurumen gaiekiko dagoen egoera eta Aranerrekek ezkutatu ezin dena erakusten duela esan dute: “utzikeria”. Udal baimenetan, paperean, baldintzak ondo xehe zerrendatu eta argudiatzea egokitzen jo du Ingurumen Elkarteak, baina gero horiek nola gauzatzen diren ikuskatzeko denborarik ez hartzea leporatu dio Udalari: “errekararen muinaren gaitza osatzeko asmorik eta dirurik ez, baina azala osatzen duen ingurua, hormigoia eta galipotarekin koloretzatze bada denbora, dirua eta baliabideak”.

“Eraikuntza enpresari zigor-espedientea irekitzea eskatzen dugu”

Azken urteotan, isurketa salaketak sarritan aurkeztu dituzte Anerreka Ingurumen Elkarteko kideek, baina arazoak konpontzeke jarraitzen duela azpimarratu dute: “2016tik promesa asko egin dira, hemeroteke da lekuko, baina tajuzko azterketa integral bat ez da sekula egin. Kudeaketa Integralerako Plana behar du errekarak, gune urbanoak erabat inguratuta egoteak, ekosistema hori oso hauskor bilakatzen du, eta

babes neurriak ondo zehaztuta jasotzea behar beharrezkoa da”.

Udala konturatu ere ez

Azken bi legealdietako Udal Planetan, udal gobernua honakoa jaso duela dio ingurumen elkarteak: Aranerreka garbitu. Denbora horretan “Jaureguizar eraikileak ur beltzekin galanki zikindu eta kutsatu du erreka”, eta Udala konturatu ere ez dela egin jakinarazi du Elkarteak: “isurketa larri hauek direla eta

Jaureguizar eraikuntza enpresari dagokion zigor-espedientea irekitzea eskatzen dugu, eta, zigor-espediente horren izapidetzean dauden berrien informazioa Anerreka Ingurumen Elkartearen esku jartzea”.

Ingurumenaren zaintza, paperean eta “titular handinahiekin” erabili beharrean, “benetan eta behingoz”, bere agendan kontuan hartzen has-teko eskaria luzatu dio Anerreka Ingurumen Elkarteak Udalari.



“Jaureguizar eraikileak ur beltzekin galanki zikindu eta kutsatu du erreka”. Argazkia: Anerreka.

Errege kabalgata Urdaiaiatik abiatuko da

Errege egun bezperako kabalgata ohiko mar-txara itzuliko da aurten. Goizeko gutun bilketa zein arratsaldeko errege kalejira pandemia aurreko moduan ospatuko dira.

Gutun bilketa

Hilaren 5ean, erregeen laguntzaileak eta postaria herriko frontoian izango dira goizean zehar haurren gutunak jasotzeko xedez. 11:30ak aldera iritsiko dira frontoira, eta bertan egongo dira eguerdi arte. Ondoren, arratsaldean, laguntzaileak eta postaria erregeekin elkartuko dira gauean ekarri beharko dituzten oparien zerrendak emateko.

Arratsaldeko kabalgata

Errege kabalgata, berriz,



Urtarrilaren 5ean goizeko 11:30ak aldera jasoko dituzte erregeentzako gutunak. Kabalgata arratsaldeko 17:00etan abiatuko da.

17:00etan abiatuko da Urdaiaiatik. Laguntzaile mordoa izango dituzte erregeek eta zaldiz egingo dute bidea urtero legez. Arratsaldeko 19:00ak

aldera iritsiko dira frontoira eta bertan hurrekin gertutik egoteko aukera izango dute, bai eta mezuren bat edo beste emateko ere.

400etik gora lagun izena emanda, Irisasi BTT-n

Urtarrilaren 29an ospatuko den probarako izen-emateko epeak zabalik jarraitzen du kronoak.com atarian. Hilabete amaieran, mendiko bizikleta zaletuen topagunea izango da herri hau. Urtarrilaren 29rako iragarri dute Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probaren ha-maikagarren edizioa. Ohi bezala, aurrez izen emateko aukera izango duzue, urtarrilaren 25era arte. 500 lagunentzako tokia egongo da proban, antolakuntzak ohartarazi duenez ordea, 400etik gora lagunek bide-ratu dute inskripzioa.

Ohi bezala Andatzari itzulua emateko aukera izango dute bizikleta gainean. Urtarrilaren 29an 9:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

noaia.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.

www.noaia.eus

Herri sorkuntzaz jositako 90 otar zozketatu dituzte

Pozarren joan ziren frontoira, abenduaren 31n eginiko zozketan “650 Usurbil Bizi” otarra egokitu zaien herrikideak. Hurbilago San Silbestre herri lasterketa amaieran, Usurbilgo 34 ekoizle eta sortzaileren produktuez hornituriko 90 otar eskuratu zituzten beste hainbeste herri-tarrek frontoian egindako ekitaldian.

Asteotan aipatu Hurbilagoren elkarteko kide diren ostalaritza eta merkataritza saltokietan 10 eurotik gorako erosketak egin dituztenek irabazi dituzte otarrak. Herrian bizi eta erosteagatik.

Hurbilago Elkartek, Usurbilgo Kulturguneak eta Usurbilgo Udalak tokiko produkzioa sustatzeko antolatuturiko ekimenean herriko 34 ekoizle eta sortzaileek parte hartu dute. Haien produktuez osatu dituzte otarrak. Otarrak Udarregi Ikastolako DBH 4ko ikasleek prestatu dituzte, ikasurte amaierako bidaierako laguntzatxoaren truke. Zozketan parte hartzeko Hurbilago elkarteko 18 saltoki inplikatu dira. Ekimen honetan parte hartu duten herritarrek osatu dute auzolanean bideratu den egitasmoa.

‘650 Usurbil Bizi’ otarren zozketan sarituak

Aizpurua Okindegia:

Manolo Goenaga
Pepi
Mila Manterola
Alaitz Kamino
Idoia Ortubia

Alkartasuna Kooperatiba:

Joakin Otxotorena
Iñaki Labayen
J.A. Segurola Arregi
Amets Bereziartua
Miguel Azurmendi



Hurbilagoren elkarteko kide diren ostalaritza eta merkataritza saltokietan 10 eurotik gorako erosketak egin dituztenek irabazi dituzte otarrak. Herrian bizi eta erosteagatik.

Ane Ileapaindegia:

Juli Uli
Pilar Huegun
Margarita Martin
Ainara Nieves
Ixiar Alkorta

Artzabalgo baserri-jatetxea:

Karmele Arizmendi
Gorka Astiazaran
Begoña Torres
Maider Infante
Jose Ignacio Etxenike

Esnaola janari denda:

Silvia Simon
Angel Uli
Gurutze Atxega
Isidra Osa
Marie Oliva

Guria Taberna:

Iñaki Pedruello
Jesús Cantón
Jokin Eizagirre
J. M. Eusebio
J. L. Aranburu

NI Ileapaindegia:

Mattin Aierbe
Ana Arruti
Araitz Azpirotz
Eider Arruti
Itxaspe Vaquero

Intza ileapaindegia:

Iñaki Zugasti

Ainara Zumeta

Xoko Matxain
Jokin Zubiaur
Idoia Muguruza

Iratze natur denda:

Maria Luisa Alustiza
Mila Casty
Labrit Zabala
Arantxa Enetarriaga
Jon Mikel Zabala

Itzira eraikuntzak:

Pilar Canseco
Jon Zumeta
M^a Lourdes Navascues
Carmen Carranza
Marian Sola

Laukote:

Pepi Odriozola
Iñaki Ezkurdia
Lourdes Jauregiberri
Pako Navarro
Gonzalo Gutierrez

Laurok liburudenda:

Joxe Mari Lertxundi
Jose Garcia
Rakel Molviedro
Imanol Zaldia
Judith Martinez

Lizardi liburudenda:

Agurtzane Solaberrieta
Saioa
Amaia Atxega

Maria Jesus Ganboa
Nerea Moreno

Marije jantxidenda:

Iker Alduntzin
Nerea Agudo
Eli Udabe
Aloña Pulido
Ana Orbegoza

Otar-Goxo:

Irati Bordagaray
Juani
Maria Jesus Olano
M^a Mercedes
Nekane Ariz

Txapeldun taberna:

Joxemiel Irastorza
Jorge Floristan
José A. Lavat
Antonio Da Silva
Juanan Barcenilla

Txirristra taberna:

Silvia Alvarez
Jose Manuel Loyola
Lukas Arrozpide
Olatz Uli
Angel Trulleu

Usurbil Optika:

Juan Carlos Garmendia
Josune Urdangarin
Intza Roteta
June Landaluze
Nagore Goikoetxea



Hurbilago Elkarteak, Usurbilgo Kulturguneak eta Udalak antolatutako ekimenen herriko 34 ekoizle eta sortzaileek parte hartu dute.

Lasterketa bizia, tokiko merkataritzaren eta ostalaritzaren alde

Bi urteko etenaldiak gasetu egin du eta sasoi-ko itzuli da plazara, Hurbilago San Silbestre herri lasterketa. Ehunka lagun atera ziren tokiko ostalaritzaren eta merkataritzaren alde korrika egitera. Bizi asko gainera, Mikel Laboa plazan abiatu zen unetik bertatik.

Urtea jai giroan agurtu zuten tokiko saltokien alde. Eta mozorrotuta. Inoiz baino mozorrotu gehiago ikusi genituen herriko kaleetan barrena; tartean, amaieran saritu zuten gabonetako zuhaitz eta opari sorta ibiltari bat ikusi ahal izan genuen.



Urtea jai giroan agurtu zuten tokiko saltokien alde. Eta mozorrotuta.

Udaberri giroa

Udaberri giro beteko arratsal-

dea izan zuten bidelagun lasterkariek, herriari eman zioten

bira bikoitzean. Lagun arte eta familia giro betean joan zen

2022a agurtu zuen azken ekimena.



Lagun arte eta familia giro betean joan zen herri lasterketa.

Lagunartea txapelkun, Mirotzen omeneko eskubaloia jaialdian

Lagunarteko oroimen jaialdian bilakatu zuten Labenduaren 30ean egun osoz Oiardo Kiroldegian jokatu zen Mirotzen omeneko lagunarteko eskubaloia txapelketa.

Sari banaketarekin eta partehartzaile guztien argazkiarekin amaitu zuten.

Sailkapenari erreparatuta, Iruñeko Anaitasuna nagusitu zen nesken eta mutilen txapelketan. Usurbilgo ordezkariak dagokionez, nesken taldeak laugarren postuan amaitu zuen txapelketa, mutilenak bigarren. Final saioetan, ohorezko sarea herritik kanpo ibilbide ezin oparoagoa jorratzen ari diren bi kirolariek egin zuten; neskenentz, Esther Arrojeriak eta mutilenentz Eneko Furundarenak.



Sailkapenari erreparatuta, Iruñeko Anaitasuna nagusitu zen nesken eta mutilen txapelketan. Usurbilgo ordezkariak dagokionez, nesken taldeak laugarren postuan amaitu zuen txapelketa, mutilenak bigarren.

Sailkapenak

Neskek

- 1-Anaitasuna
 - 2-Basauri E.T.
 - 3-El Pilar Maristas Zaragoza
 - 4-Usurbil K.E.
 - 5-Aiala Z.K.E.
 - 6-Tolosa C.F.
- Atezain saiatuena:
Jare Salvoch (Anaitasuna).
Jokalari saiatuena:
Lierni Garaioa (Anaitasuna).

Mutilak

- 1-Anaitasuna
 - 2-Usurbil K.E.
 - 3-Amenabar Z.K.E.
 - 4-Tolosa C.F.
 - 5-Basauri E.T.
 - 6-El Pilar Maristas Zaragoza.
- Atezain saiatuena: Martin Colina (Amenabar Z.K.E.).
Jokalari saiatuena: Xuban Lertxundi (Tolosa C.F.).

Errifa zozketak

Bi errifa zozketa egin ditu baita Usurbil K.E.-k. Bat abendukoa; 1.198 izan da zenbaki saritua.

Bi gauetako egonaldia

Errifa zenbakiaren jabeak bi lagunentzako bi gauetako egonaldia irabazi du logela bikoitzean. 15 egun ditu sarituak saria jasotzeko. Bideotatik:

678 068 508

usurbilkirolelkarteia@gmail.com

Urdaiazpikoa eta mariskada

Bigarren zozketa, Mirotzen omenezko txapelketari lotuta dago. 0024 eta 0128 izan ziren zenbaki sarituak. Bordatxo tabernaren urdaiazpikoa eta Bruno etxekoen mariskada zozketatu zuten. Kasu honetan bai, jakiok sarituen esku daude jada.



Final saioetan, ohorezko sarea ibilbide ezin oparoagoa osatzen ari diren bi kirolariek egin zuten; neskenentz, Esther Arrojeriak eta mutilenentz Eneko Furundarenak.

Gabon giroa Usurbilgo kaxkoan



Udarregi ikastolako ikasleek kantu kantari eta txistorra janez hartu zituzten Eguberrietako oporrak. Txoko ezberdinetan aritu ziren abesten.



Bizi-bizi eta goxo etorri ziren Mari Domingi eta Olentzero.



Harrera beroa egin zitzaion Gabonetako bi pertsonaia maitatuenei.



Jolasean eta txistor janarekin borobildu zuen urtea Ziortzak, Askatasuna plazan ospatu zuen San Tomas festaren bueltan.



Abenduaren 20an, Zumarteko abesbatzek emanaldi bikaina eskaini zuten Salbatore Elizan.



Sarek herriko hainbat sortzaile batu zituen Sutegiko oholza gainean.



Orbeldi Dantza Taldeak emanaldi berezia eskaini zuen abenduaren 17an.

Gabon giroa Zubietan zein Santuenean



Oporretara joan aurretik kantuan atera ziren Zubietako eskolako kideak.



Zubietarrak Artzabaleta baserri paretik abiatu ziren abenduaren 24an.



Santueneko auzo elkarteak txistorra banatu zuen San Tomas egunean.



Santuenean ere, kalejiran ibili ziren abenduaren 24an.

Eguberriak Aginagan

Olentzero Aginagan izan zen bisitan abenduaren 23an, hurrengo gauean ekarriko zituen opariei buruzko gutunak bildu asmoz. Menditik barna Sekañara jaitsi zen laguntzaileekin batera, eta bertan itxaroten ari ziren ume guztiekin Eliza Zaharrrako bidea hartu zuen. Bertan, gutunak jaso eta haurrekin hitz egiteaz gain, argazkiak ateratzeko aukera ere izan zuten.



Abenduaren 23an etxez etxe kantatzen aritu ziren. Aurretik eskolan idatzitako koplak abestu zituzten.



San Tomas egunean, Eliza Zaharrean batu ziren haur eta guraso anitz.



Olentzero Aginagan izan zen opariei buruzko gutunak biltzen.

Zumarteko Saxo taldea, kalejiran



Eguraldia lagun, herriko hainbat txokotan ibili ziren.

Zumarte Musika Eskolako Saxo taldeak kontzertua eskaini zuen abenduaren 22an eguberrirei etorrera emateko. Eguraldia lagun, herriko hainbat txokotan ibili ziren gabon kanta ezagunak jotzen.

Zumarte Musika Eskolak

abesbatzen kontzertua eta saxo taldearena eskaini zituen Gabonen atarian.

Musika egun horien ezaugarri argia izaten da, eta musika eskolako kideek badakite gabonak musikarik gabe ez lirakeela gabon izango.

Yolanda Arrietarekin solasean, eguberrien atarian



Yolanda Arrietak kuadrilla ederra erakarri zuen udal liburutegira.

Abenduaren 23an, LH5 eta LH6ko hainbat ikasle Yolanda Arrietarekin solasean aritu ziren. “Nitaz ahaztu dira” liburuari buruz hitz egin zuten, 2010ean Yolanda Arrietak berak plazaratutako liburuaz, hain zuzen. 20 bat umek osatutako taldetxoan liburuaren tripak aztertu zituzten.

tutako taldetxoan liburuaren tripak aztertu zituzten.

Egun batzuk lehenago, Juan Kruz Igerabideren “Euskal Herrietako ipuin gaiztoak” hartu zuten ahotan. 10 bat haurrez osatutako taldetxoan aritu ziren solasean.

Urte oparoa izan da Ernai eta Ikamarentzat

Ernai eta Ikamak urteari agur esan zioten abenduaren 27an antolatutako jardunaldi egunarekin. Urte oparoa izan da talde hauentzat, denetariko jardunaldi eta ekitaldiekin eta urteari agur esateko ere prestatu zituzten ekitaldiak.

Goizean, hezkuntza eta osasun mentala izan zituzten hizpide herriko hainbat gaztek Gazte Lokalean eginiko mahai inguruan. Talde txikitik landu zuten gaia lehenik, ondoren gainontzekoekin ondorioak partekatu eta denen artean gaia osotasunean lantzeko. Dozena erdi bat laguneko taldea elkartu zen goizko jarduerarako.

Arratsaldean, Gazte Lokalean elkartu ziren berriz ere “sexualitatea deseraikitzen” izeneko tailerrean par-



Gazte Lokalean hainbat mahainguru egin zituzten abenduaren 27an.

ERNAI-IKAMA

2023an ere hainbat jardunaldi antolatuko dituztela iragarri dute

te hartzeko. Hainbat herritar elkartu ziren tailer honetan parte hartzeko ere, eta ondoren, nahikoa hitz egin eta hausnartu ostean, poteoari bide egin zieten. Aitzagatik abiatuta po-

tean aritu ziren herriko zenbait gazte eta horren ondotik, Aitzagan eginiko afari eder batekin borobildu zuten eguna Ernai eta Ikamako kideek.

Modu horretan agurtu zuten urtea Ernai eta Ikamak, baina 2023an ere hainbat eta hainbat jardunaldi eta ekitaldi egingo dituzte. Beraz, presta daitezela urte berri honi gogotsu heltzeko.

Ingurumen hautu egokiak egiten al ditu Usurbilek?

Ingurumena, ekologismoa eta energia izan zituzten hizpide abenduaren 28ko mahai-inguruan. Usurbilentzat eredu egokiak hautatzeko bidean, egungo Euskal Herriko zein Usurbilgo egoera ezagutzea izan zuten helburu.

Lau hizlariz osatutako mahai ingurua izan zen eta hainbat gai lantzeko aukera izan zuten bertan: Euskal Herriko eta Usurbilgo biodibertsitatea, energia ereduak eta egungo egoera, ingurumen politikak, etorkizuna... Egoera iluna azalatu zuten gai gehienetan eta egungo egoera oso txarretatik edo txar zein eskasetatik abiatuta egiteke dagoen lana azpimarratu zuten hizlariek.



Egindakoaz eta egiteke dagoenaz jardun zuten abenduaren 28an.

GHK-ri erantzuna: herritarrek Zubietako erraustegiaren egiak ezagutu behar dituzte

Errausketaren Aurkako Mugimendua –EAM– hasi denetik zabaltzen Zubietako erraustegiaren kutsaduraz ToxicoWatch fundazioak egindako ikerketaren emaitzak, GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak hedabideen bidez erantzun du guk zabaldutako informazioak direla “alarma soziala sortzea besterik bilatzen ez duten akusazio faltsuak” eta gehitu du: “ToxicoWatch-ek zehaztasun tekniko eta zientifikorik gabeko txostenak egiten ditu, errealitatea gezur-rekin desitxuratuz, herritarrek izutzeko”. Ondoren dio GHK-k erraustegiaren emisioak egunero neurtzen dituela eta Biodonostiak egiten duela horien jarraipena: “Biodonostiak emandako datuek erabateko babes zientifikoa dute eta guztiz argiak dira. Oso larritzat jotzen dugu batzuek berriro ere Gipuzkoako gizartearen hondakinen gaiarekin zatitzen saiatzea”.

Errausketaren Aurkako Mugimendutik gogor salatzen dugu GHK-k gai honetan darabilen jokabide maltzurra. Hasteko, Herbehereetako ToxicoWatch fundazioa erreferente internacional bat da toxikologiako komunitate zientifikoa. Bera arduratu da Zubietako erraustegiak sortutako isuriaren neurketaz eta azterketaz: kontrol zorrotzekin bildutako laginak Herbehereetako laborategi



“Errausketaren Aurkako Mugimendutik gogor salatzen dugu GHK-k gai honetan darabilen jokabide maltzurra”.

IPAR HAIZEA, EGUZKI, ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

**“Hemen ez dago
ez gezurrik, ez
manipulaziorik. GHK-k
eta aginte publikoek egin
nahi ez dutena osatzeko
asmoa baizik”**

akreditatuetan analizatzen ditu eta emaitzak eta horien analisia publiko jarrita dauzka bere webgunean (www.toxicowatch.org) denen eskura. Elkarlanean, Geyser, Eusko Jaurlaritzak akreditatutako enpresa, neurketa batzuez ere arduratu izan da.

ToxicoWatch-ek bere ikerketak garden eta publiko egiten dituen bitartean, GHK-k aipatzen dituen txostenak ordea EZ DIRA PUBLIKOAK. Zergatik ezkututzen dituzue 2019az geroztik Biodonostiak egindako

ikerketak horiek eta ez dituzue publiko egiten? Diozuen bezala, dioxinak egunero neurtzen badituzue, zergatik ez dituzue emaitzak publiko egiten xehetasun guztiekin?

GHK-k berak egindako kutsaduren neurketen inguruan, bi txosten publiko bakarrik daude, eta biek ere kutsadura maila onartezinak jasotzen dituzte. Adibidez, SGS-ren 905-286137-02 instalazioaren jarraipen txostenak, zehazki baieztatzen du giza osasunarentzat edo ekosistemarentzat arrisku onartezinak diren dioxina baloreak, sei aldiz gainditzen direla bertako lurpeko uretan. Arkaitzerrekan uztaitetik izaten ari diren isurketak, GHK-k sistematiko ukatu egiten ditu, eta oraindik publikoki onartu gabe, jakin da, GHK-k arazo larriak dituela bertako fosean eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak ku-

tsadura ekiditeko neurriak hartzera behartu duela. Hau al da GHK-ren gardenetasun, zehaztasun tekniko eta zientifikoa? Ez GHK-k eta ez Gipuzkoako eta EAEko agintariek bermatzen ez dutenez herritarren borondatearen kontra Zubietan hondakinak erretzen dituen errausketaren isuriaren kontrolik eta horien inguruko informazio gardenik, EAMek ToxicoWatch-i eskatu zion isuri horien analisi jarraitua egitea, eta horretan dihardu urtez urte 2019az geroztik. Hemen ez dago, beraz, ez gezurrik, ez manipulaziorik, ez herritarrek zatitzeko eta ez jendartearen beldurrik zabaltzeko asmorik, GHK-k eta aginte publikoek egin nahi ez dutena osatzeko asmoa baizik.

Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatua buru duela GHK-k herritarrei benetan lasaitasun mezuak bidali nahi badizkie, oso ondo dakite zein duten bidea: eza-gutarazi ezazue publikoki Zubietako erraustegiko labee tximiniatik zer eta zenbat isurtzen duten, erakuts ezazue nola egiten duzuen isuriak momentu oro neurtzea –baldin eta egiten baduzue– eta zein diren emaitzak. Egin itzazue publiko herritarren aurrean dituzuen txosten guztiak.

**Errausketaren Aurkako
Mugimendua, Eguzki,
Ipar Haizea.**

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugul!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ARANKA
BERRIKUNTZAK
Fatxaden estaldurak · Estalkien berriktatzeak
Barruko berriktutak · Gremioen koordinaketa
Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

“Erraustegiak aireratutako dioxinak, metal astunak... metatzen doaz, besteak beste, goroldioan”

A benduaren 23rako Potxoenean deitua zuen ekitaldia urtarrilaren 13ra (18:00etan Potxoenean) atzeratzea erabaki zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Hitzordu honetan, Zubietako erraustegiaren kutsadurari buruzko azken berriak hartuko dituzte ahotan. Batetik, Holandako ToxicoWatch Fundazioak iaz egindako biomonitorizazioaren emaitzak aurkeztuko dituzte. Bestetik, Malen Azpiazu Zubeldia EHU-ko kimika fakultateko ikasle ohi eta herrikideak gai honi buruz egindako Gradu Amaierako Lana aurkeztuko du: “Metal astunen determinazioa erraustegiaren inguruko goroldio laginetan”. Berarekin bildu da astekari hau.

Zerk eraman zintuen gai hau lantzeraz?

Malen Azpiazu Zubeldia: Niri pertsonalki ukitzen zidan edo behintzat gazteriarri ukitzen zion gai bat hautatu nahi nuen. Hor ibili nintzen bueltaka, antikonzeptiboan eragina aztertzea pentsatu nuen, beste gai



Urtarrilaren 13an Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Potxoenean deituriko solasaldian hartuko du parte Malen Azpiazu: “Metal astunen determinazioa erraustegiaren inguruko goroldio laginetan”.

MALEN AZPIAZU

EHUko kimika fakultatean ikaslea, goroldioan metatuta dauden metal astunak aztertzen aritu da

batzuk ere bai. Irakaslearekin adosten nenbilela jaso nuen

proposamena; ea animatuko nintzen erraustegiaren kutsadurari buruzko ikerketa horretan parte hartzera, kasu honetan, goroldioan dauden metal astunak aztertzeraz. Herriari zuzenki eragiten dion gaia izanik, nire ekarpena egiteko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Azkenean, bai edo bai

egin behar nuen lana, gutxienez zerbaiterako balio izatea nahi nuen. Oso gai interesgarria eta baliagarria izan da.

Zergatik goroldioa?

Erraustegiak aireratutako dioxinak, metal astunak... ingurunera doazela irudikatu behar dugu, metatzen doaz, besteak beste goroldioan. Horren analisia eginez gero ondorioztatu daiteke airean dagoen kutsadura. Esan dezakegu, goroldioa aireaz elikatzen dela, hortaz, berak aireko substantzia guztiak jango ditu eta bere osagaiak aztertuta jakingo dugu airean zer dagoen.

Zeintzuk ziren zure lanketaren helburuak?

Batetik, erraustegiaren inguruan aurkitzen diren goroldioetan zer nolako eta zenbateko metal astunak dauden aztertzea, eta bigarrenik, 2019ko datuekin alderatzea eta urtez urte kutsatzaile hauen ibilbidea zein den aztertzen segitzea eta eragilea zein izan daitekeen behatzea. Hor dugu eragile nagusia izan daitekeen erraustegia.

“Metatzen doazenez, airean ere beste hainbeste pilatua dagoela ondorioztatu daiteke”

NOAUA! Urte asko pasa ditugu airera begira baina ezin bestekoa da lurrera begiratzea ere ezta?

Malen Azpiazu Zubeldia: Azkenean lurrean metatzen doaz. Arrautzen analisia egin dute. Oiloak lurretik elikatzen dira. Lurretik jaten duten hori kutsatua badago beraien arrautzak ere kutsatuak egongo dira. Logika horretan oinarritutako analisiak dira eta horregatik hautatzen da goroldioa, beste hainbat gairen

artean. Metatzen doazenez, hor gai toxikoak badaude, airean ere beste hainbeste pilatua dagoela ondorioztatzen da.

Behatu ahal izan duzunagatik, kezkatzeko moduko motiboak izan ditzakegu?

Goroldioaren neure azterketan bai ikusi dut igoera bat. Hasieran harritu ninduen datu bat da. Igoera handia da. Egin beharko litzatekeena da urtez urteko analisia burutu eta ikusi ea kanpo faktoreak dauden

edo erraustegia izan den benetakako faktore bakarra. Orduan urtez urte aztertzen joanez gero ikusiko dugu aldapan gora doan edo mantentzen den. Hasierako lehenengo laginketa honetan goranzko joera hori dagoela ikusi da. Mahaigaineratu beharreko gaia da, zer bait plantatzeko modukoa.

Nola jaso duzu urtarrilaren 13ko ekitaldian parte hartzeko gonbita?

Niretzako aukera polita da,

egindako lan bat aitortzeko unea. Nire ikaskide askok izugarritzko lanak egin dituzte. Ahalegin handia egin da ere, askotan hor geratzen diren lanak dira. Horregatik, egindakoa partekatze espazioak izatea ondo legoke. Halako ekarpena egin daitekeela jakiteak motibazioa ematen ditu.

Hortik fruitua atera zen eta fruitu horri zukua ateratzeko unea da hau, lan honen ibilbidearen itxiera.

Aginagako eskolako azokako postua, elkartasunarena

NOAUA! Kultur Elkar-teak abenduaren 18an frontoian antolatu zuen San Tomas Azokaren baitan, herrikide hainbaten postuetan barrena osteratxo egiteko aukera izan genuen. Ezkerpareta parean ziren besteak beste, Aginagako eskolako kideak. Haien uza propioarekin etorri ziren azokara. Osasun krisialdiak eragotzi zielako “aurreko bi urteetan ez genuen parte hartu, aurretik bi urteetan bai. Aurten berriz egoteko aukera ikusi genuen”.

Esan eta egin, jaki goxoe-kin ondo hornitutako postua ekarri ziguten frontoira. Pastak, bonboiak... eta letxugak. Iaztik lantzen ari diren lursail bat dute eskola ondoan. Baratza horretan hazitakoak dira letxugak.



“20 bat haurrek baliatzen dute garraio zerbitzua, “baina autobuseko 40 plaza geratzen dira bete gabe. Ez dugu autobus osoa betetzen baina osoa bete izan bagenu bezala ordaindu behar izaten dugu”.

Saria, Egoi Fernandezentzat

Aginagako ikasleen postura hurbiltzen zirenei apustu batean parte hartzeko gonbita ere

egin zieten. Babarrunak zituzten; zenbat ale zeuden zehazki asmatu edo gehien hurbiltzen zenarentzat produktuen otar

bat eman nahi zuten. 1.962 ale zituzten. Kopurura gehien gerturatutakoa Egoi Fernandez izan zen.

“Eskerrik asko”

Albiste honen hasieran, elkartasun postu gisa definitu dugu Aginagako eskolak San Tomas azokan jarri zuena, bildutako laguntza ikasturte amaierako irteera gastuei aurre egitera bideratu nahi dute eta. Zehazkiago esanda, garraio zerbitzua ordaintzera. “Oso garestia da”, eta dagokiena baino gehiago ordaindu behar izaten dute. “20 inguru joaten gara, baina autobuseko 40 plaza geratzen dira bete gabe. Ez dugu

autobus osoa betetzen baina osoa bete izan bagenu bezala ordaindu behar izaten dugu”.

Horregatik argi zuten, iragan azokan bildutako laguntza zertara bideratu nahi zuten; udaberrian Gipuzkoako mendiren batera egingo duten bi eguneko txangorako autobus zerbitzua ordaintzera. Iragan hilabete-ko hitzorduaz gain, oporretara joan aurretik Aginagan barrena egin zuten gabonetako kantu saio eta kalejiran ere bizilagu-

nen laguntza biltzen aritu ziren eta babes hau ere aipatu gastuei aurre egiteko baliatuko dute.

“Eskerrik asko” helarazi nahi diete modu batean edo bestean lagundu duten guztiei, modu berezian noski, eskolako lagun eta senideei. “Aipatzekoa eta oso eskertzekoa familia guztiek nola hartu duten parte”. Jakiak sukaldatzen lagundu eta postuan erosten ere aritu ziren. Aurreikuspenak gainditu zituztela adierazi diote NOAUA!ri.

“Uste genuen ez zela dena salduko, baina ez zen ezer geratu. Gainera esan ziguten, gehiago bazen, salduko zela”, adierazi digute Aginagako eskolako ikasleek.

Aurreko asteetan, postua atontzeko elikagaiak sukaldatzen aritu ziren eskolan bertan. Posturako kartelak ordenagailuz diseinatu. Bistan denez, gogotik egini-ko ahaleginak merezitako ordainsaria izan du.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Usurbil Döner Kebab
USURBIL
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Zumarte, belaunaldiartekotasunaren kabilia

Ezohiko bisitariak izan zituen musika eskolak abenduaren 20an, Egunekeko Zentroko eta Egunekeko Arreta zerbitzuetako erabiltzaileena hain zuzen. Eta haiekin bidelagun ezinhobeak; Udarregi Ikastolako DBHko gazteak. Denek batera Zumartekoek prestatu zieten bisita gidatuan parte hartu zuten. Musika eskolaren instalakuntza berriak hurbiletik ezagutzeko aukera izan zuten; gutxitan ikusten ditugun bezala, bi belaunaldiak eskua elkarri emanda, elkarren bidelagun.

Amaieran, Zumartekoek antolaturiko gabon giro beteko kontzertua eskaini zieten. Eguberrietako kantak abesten amaitu zuten denek, hainbat oroigarri banatzearekin batera.

Lehen Egunekeko Zentroan

Osasun krisialdiak bi urtez eragotzi ostean berreskuratu ahal izan zuten gabonen atariko topaketa hau. Lehen, Egunekeko Zentroan ospatzen zuten. Zu-



Abenduaren 20an topaketa berezi baten lekuko izan zen Zumarte Musika Eskola.

ABENDUAREN 20AN

“Udarregiko gazteak, Egunekeko Zentroko zein Egunekeko Arreta zerbitzuetako erabiltzaileak batu ziren Zumarte Musika Eskolan”

marteko kideak bertara igotzen ziren emanaldia eskaintzera. Aurtengoan eskenatoki aldaketa izan da, eta bidelagun berriak batu zaizkie; Udarregi

Ikastolako DBH-ko gazteak.

Proiektu komunitarioen inguruko ikasgai berrian buru-belarri lanean ari dira. Arlo hau komunitateari ekarpen bat egiteko baliatzen dutela adierazi digute, kasu honetan, belaunaldiartekotasuna lantzeko. Gizarte langilearekin hitz egin ostean, goiz pasa Egunekeko Zentroko eta Egunekeko Arreta zerbitzuetako adinekoekin egoten hasi ziren asteartero. Oporraldi aurreko urteko azken asteartea Zumarteko topaketarako baliatu zuten.

“Arauak eta mugak familian” hitzaldia, Gaztelekua eta Hitz Ahoren eskutik

“Arauak eta mugak familian. Nola ezarri modu asertibo batean” tailerra antolatu dute Gaztelekua eta Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak urtarrilaren 12rako eta 19rako, 17:00-19:00 artean Potxoenean. Haur eta nerabeen gurasoei zuzenduriko bi saioetan, “familian harreman orekatua, osasungarria eta onuragarria izateko beharrezkoa den egitura nola izan landuko dugu, horretarako lagungarriak izango zaizkigun arauak eta mugak jartzen ikasiz”. Jorratuko dituzten gai eta

edukien artean, honako hauek, besteak beste: “zer dira mugak? Zertarako balio dute mugak? Mugak era asertiboan jartzearen onurak, mugak era asertiboan jartzeko tresnak, arauen beharra familian, arauak era asertibo batean jartzeko modua, zer izan behar dugu kontuan arauak eta mugak jartzeko orduan?”. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak lagundu eta Leyre Canok bideratuko duen tailerrarako izena doan eman ahalko da usurbilkultura.eus plataforman edo helbideotan:



Urtarrilaren 12an osteguna, 17:00-19:00 artean, Potxoenean.

gaztelekuausurbil@gmail.com / hitzaho@udarregi.eus. Plaza kopuru mugatua izango da.

Bi ikastaro Parekidetasun Sailetik

“Biodantza” ikastaroa

- Iraupena: Urtarrilak 10-martxoak 28.
- Saioak: Asteartero, 15:30-17:00 artean Oiarde Kiroldetxean.
- Bideratzailea: Eider Zuriarrain.
- Zehaztasunak: “Gorputz adierazpen sistema bat izateaz gain, garapen pertsonalerako proposamena ere bada non, talde testuinguru batean, musika, mugimendua eta ariketa/dantza antolatuen bitartez, gure gaitasun naturalak garatzen diren”.

“Aprender a quererse y a cuidarse bien” ikastaroa

- Epea: urtarrilaren 19tik martxoaren 30era.
- Saioak: ostegunetan, 17:00-19:00 artean Potxoenean (gastelaniaz).
- Bideratzailea: Kontxi Lopez Soria.
- Zehaztasunak: “emakumeoi jasotzen dugun genero-hizkuntza dela eta zaintzaile, hezitzaile, emozio-kudeatzaile rola esleitzen digute. Inguruko beharrak norberarenak baino garrantzitsuagoak direla azpimarratuz eta norberaren zainketa alde batera utziz. Ikastaro honen bitartez emakumeen arteko topaketa eta hausnarketa espazio bat lortu nahi da, eta emakumeen bizi kalitatea hobetu hazkunde pertsonalaren bitartez”.
- Izen-ematea: Doan urtarrilaren 9ra arte, 943 377 110 telefono zenbakian edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean.
- Oharra: plaza kopuru mugatua.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Bigarren eskuko Ford Focus Berlina Trend bost ateko ibilgailua salgai. Berria, zaindua,

garajeen egondakoa. 56.000 km. 125 zaldi. Gasolina. Aurke bi gurpilak lau urtarotarako baliagarriak. 11.900 euro. 629 553 497 (Beatriz).

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona:

680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko.

943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jabetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldeko haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partiku-

larrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltserritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galduta duenak Udaltzainetan galdetu, bertan utzi dugu.



Zorionak Ibai! 10 urte beteko dituzu urtarilaren 8an. Aiton-amonen, izeba-osaben, arreba Iratiren eta lehengusu Xuneren partetik ondo-ondo pasa!



Zorionak Xune! Urtarrilaren 8an 8 urte! Segi orain bezain alai! Muxu handi bana familia guztiaren, eta bereziki, Haizearen partez. Iganderako prestatu belarriak!!

Iker Nazabal eta Peru Iraeta, Euskal selekzioarekin

Usurbil Kirol Elkarteko Iker Nazabal eta Peru Iraeta eskubaloj jokalariek CESA2033 txapelketa jokatu dute Benidormen. Euskal selekzioarekin arituko dira urtarilaren 3an hasi eta 8ra bitartean luzatuko den txapelketan.

Heriotzak

Manuel Lizaso Arriaga

Abenduaren 26an hil zen, 88 urterekin.



Goardiako farmaziak

Osteguna 05	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 06	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 07	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 08	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astlehena 09	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Asteartea 10	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteazkena 11	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola	9. Lasarte

Osteguna 12	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 13	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 14	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 15	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda

urtarrila

05 osteguna

- **Erregeen kabalgata** 11:30 Erregeen postaria gutunak biltzen frontoian. 17:00 Erregeen kabalgata. 19:00ak aldera, harrera ekitaldia frontoian. Antolatzailea: Ziortza K.E.
- **Usurbilgo 2022ko sorkuntza uztaren erakusketa** Sutegin.

06 ostirala

- **Usurbilgo 2022ko sorkuntza uztaren erakusketa** Sutegin.

07 larunbata

- **Autobus zerbitzua Sareen Bilboko manifestaziora** 15:00etan Oiardo Kiroldengan. Izen-ematea Txiribogan, Txirristran, Aitzagan eta Bordatxon. Antolatzailea: Usurbilgo Sare.
- **Usurbilgo 2022ko sorkuntza uztaren erakusketa** Sutegin.

Haurrentzako zinea bueltan da

Negu partean Usurbilgo Udalak eta Ziortzak gaztetxoentzat antolatutako euskarazko zine zikloa bueltan dator igande honetan bertan. “Barraskiloa eta balea eta itsasoko beste ipuin batzuk” ikus-entzunezkoa proiektatuko dute urtarrilaren 8an, arratsaldeko 17:00etan hasita Sutegiko auditorioan.

Sinopsia

“Mundua deskubritzeko gogoz, barraskilo txiki bat balea baten isatsera heldu eta itsasoetan zehar ibiliko da. Baina, egun batean, norabidea galdu eta badia isolatu batean geratuko da balea. Nola erreskatatuko du barraskilo txikiak?

Itsaspeko leku harrigarri eta magikoenetan barrena eramango gaituen istorio ederra da, adiskidetasun bitxi baten es-



Igande honetan ‘Barraskiloa eta balea eta itsasoko beste ipuin batzuk’ filma 17:00etan Sutegin.

kutik. ‘El Grúfalo’, ‘Zog’ eta ‘La rata pirata’ filmen ekoizleek sortu dute abentura berri hau, itsasoaren botereaz betetako hiru film laburrekin batera”.

Sarrerak

- 3 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

Autobus zerbitzua Bilboko manifestaziora

Urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobus zerbitzua antolatu du Sare Usurbilek. Izena aurrez bideratu beharko da ohiko tabernetan: Txiribogan, Txirristran, Aitzagan eta Bordatxon. Manifestazioa 17:00etan hasiko da baina autobusa 15:00etan aterako da Oiardo kiroldegitik.



Oiardo kiroldegitik abiatuko da autobusa.

Datozenak

KzGunera datozen ikastaroak

9:00-13:00 artean irekiko dute urtarilean. Hemen datozen ikastaroen berri:

- Urtarrilak 17, 9:00-11:00: “BakQ ziurtagiria”.
- Urtarrilak 18-31, 9:00-11:00: “Ofimatika tresnak-LibreOffice”.

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Kantu Taldekoen ikasturte berria

Urtea estreinatzearekin batera ekin ohi dio ikasturte berriari Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Datorren astelehenean, urtarrilaren 9an hasita, astelehenero bilduko dira 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Urtarrilaren 28an, kantu-jira

Hilabete amaieran, urtarrilaren 28an larunbata, kantu-jira bueltan izango dugu 12:00etan Mikel Laboa plazan hasita.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 19/22
20170
USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Urtarrilaren 10ean, asteartea, arratsaldeko 20:00etan

Usurbilgo TXOTX

denboraldiaren
IX. irekiera **Saizar-en**



Pablo Hermoso de Mendoza
saridun burtzikaria izango da Ohorezko gonbidatua.



Trikitilariak eta Dantzariak:
KORRONTZI Taldea

Bertsolaria:

Andoni Egaña

Aurkezlea:

Julian Iantzi

Abeslariak:

Alex Sardui (Gatibu)

Álex Ubago

David García Máñez (Código Bushido)

OHARRA:

SOILIK SARRERA IZANGO DUTE
ERRESERBATUTAKO MAHAIEK.

Aukeratu opari-txartelaren
zenbatekoa, eta %40 oparituko dizugu*

URBIL TXARTELA MERKEALDIAK



**Guztira 200 txartel daude.
Ez zaitez gabe gelditu!**

NOLA LORTU URBIL TXARTELAK?

1. Urbileko Bezeroarentzako Arreta Gunean zure doako Urbil App-eko identifikazio kodea erakutsiz.
2. Aukeratu txartel hauetako bat eta %40 oparituko dizugu:
 - 12 €ordaindu eta eskuratu 20 €-ko txartela
 - 18 €ordaindu eta eskuratu 30 €-ko txartela
 - 24 €ordaindu eta eskuratu 40 €-ko txartela
3. Erabili txartela 2023ko urtarrilaren 31 arte.

BEZEROENTZAKO ARRETA GUNEAREN ORDUTEGIA

Astelehenetik larunbatera,
11:00etatik 14:30era eta
16:30etik 20:30era.

Kontsultatu zure txartela trukatzeko lokalak
eta informazio guztia www.urbil.es-en.

BLOG



urbil.es